

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko baliabideen bitzartez, balorezko proposamena garatu, bezeroengana iritsi, bezeroekiko harremana mantendu eta, azkenik, diru sarrerak lortu ahal izango ditu gure enpresak.

Gure enpresak hurrengoko funtsezko baliabideak edukiko ditu:

Baliabide fisikoak:

- Instalazioak: Ez ditugu ekoizpen instalaziorik beharko, beste enpresa batzuek ekoiztuko dutelako.
- Bulegoa: Lokal bat beharko dugu eta alokatua izango da. Lokal honek 30m² edukiko ditu, lokal horren barruan bulego desberdinak egongo dira; gure artean biltzeko eta bezeroei informazioa bermatzeko.
- Sistema informatikoak: Web-gunea sortuko dugu eta Wi-Fi sarea beharko dugu.
- Salmentarako puntuak: Ez dugu denda propio fisikorik edukiko baina gure produktuak online eta arrantzako dendetan salduko ditugu.
- Banaketa sareak: Correosetik banatuko ditugu gure produktuak.
- Makinak: Gue bulegoan ordenagailuak eta inprimagailuak beharko ditugu. Mugikorra ere.

Baliabide intelektualak:

-Markak: Gure enpresaren izena FishMatic da. Izen hau Fish (arrantza) eta Matic (automatiko) izenetatik dator. Gainera izen hau gogoratzeko erraza da eta modernoa iruditzen zaigu.



-Patenteak: Gure produktua guk patentatuko dugu, beste enpresa batzuek gure idea ez lapurtzeko.

-Elkarteak: Goierri K.E.-rekin elkartuko gara haien bazkide ohiak eta bazkide berriek, %5-eko deskontua edukiko dute gure produktuan. Elkarre honek bere taldea handiago egiteko helburuarekin hemango digute %5-eko beherapen hau.

-Datu-baseak: Gure datu-baseak honako hauek izango dira:

- Bezeroen datu-base bat edukiko dugu beraien datuak gordetzeko. Zerbait erostean eta erregistratzean, bertan sartutako datuak gordeko dira eta promozio pertsonalizatuak gordetzeko ere gordeko dugu.
- Hornitzaileen datu-base bat sortuko dugu hornitzaileak hornitzen dituenean produktuak kode_produktua gordetzeko moduan.

Giza baliabideak:

-Ezagutza: Yerayen arrantzarako ezagutza produktua sortzeko/diseinatzeko erabili dugu.

-Sormena: Guztion sormena euki dugu kontuan gure proiektuan, produktu ideaia berria delako.

-Gaitasun komertziala: Amayak betidanik izan du gaitasun komertziala eta horrela salmentetan lagunduko digu.

Finantza baliabideak:

-Esku-dirua: ez dugu gure poltsikotik eskudirurik jarriko.

-Kreditu-lineak: Gure proiektua aurrera ateratzeko bankuan kreditu bat eskatuko dugu, kreditua 50.000€-koa izango da; alokairua, produktuaren horniketa, soldatak etab... ordaintzeko erabiliko dugu.